ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2017ko irailaren 29a, ostirala • 112 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

16/2017 Foru Araua, irailaren 20koa, abuztuaren 3ko 5/2017 zerga premiazko araugintzako dekretua baliozkotzeko dena, Arabako zerga araudiari egokitzen dizkiona balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan eta berandutze interesean egindako hainbat aldaketa

Arabako Batzar Nagusiek, 2017ko irailaren 20an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

16/2017 Foru Araua, irailaren 20koa, abuztuaren 3ko 5/2017 zerga premiazko araugintzako dekretua baliozkotzeko dena, Arabako zerga araudiari egokitzen dizkiona balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan eta berandutze interesean egindako hainbat aldaketa,

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, abuztuaren 3ko 5/2017 zerga premiazko araugintzako dekretua, Arabako zerga araudiari egokitzen dizkiona balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan eta berandutze interesean egindako hainbat aldaketa.

Aipaturiko 8. artikuluak 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Biltzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Biltzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Biltzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikuluaren arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da abuztuaren 3ko 5/2017 zerga premiazko araugintzako dekretua, Arabako zerga araudiari egokitzen dizkiona balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan eta berandutze interesean egindako hainbat aldaketa.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 20a

Presidentea
PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2017.09.29 05:32:52 Z